

MUNSTROAREN

hamaika aurpegi

Seve Calleja

Itzulpen-koordinazioa: Lurdes Auzmendi

Itzultzaileak: Regina Larrucea

Naroa Zubillaga

Josu Zabaleta

Marrazkiak: Danimaiz

*Zuek, sorginetan, arima nahigabetuetan
eta Deabruaren bidegabekierietan sinesten ez duzuenok,
eser zaitetze hemen, suaren berotasunaren ondoan...*

Alejandro Herculano

Aurkibidea

HITZAURREA.	11
1. INFANTAREN URTEBETETZEA - Oscar Wilde <i>Regina Larrucearen itzulpena.</i>	19
2. KANPOTARRA - H.P. Lovecraft <i>Regina Larrucearen itzulpena.</i>	43
3. ILARGI-MUTUR - Jack London <i>Regina Larrucearen itzulpena.</i>	55
4. GIZON BASATIA (Ipuin britainiar tradizional bat) <i>Regina Larrucearen itzulpena.</i>	67
5. KUXIN LUMADUNA - Horacio Quiroga <i>Naroa Zubillagaren itzulpena.</i>	75
6. BI ANAIK (Txinako ipuin tradizional bat) <i>Naroa Zubillagaren itzulpena.</i>	85
7. MUNSTROEN AMA - Guy de Maupassant <i>Josu Zabaletaren itzulpena.</i>	93
8. ARIMA GALDUAREN IRUDIA - Saki <i>Regina Larrucearen itzulpena.</i>	105
9. AHOTS BAT GAUEAN - William Hope Hodgson <i>Regina Larrucearen itzulpena.</i>	111
10. LOS CERROSKO MUNSTROA - J.M ^a Climent <i>Regina Larrucearen itzulpena.</i>	131

Hitza urrea

Baziren behin munstroak

Munstroaren itsusitasunak geure edertasuna gailentzen du, eta horrexegatik behar dugu: bere itxuragabetasunak gure itxurazko normaltasuna areagotzen duelako eta bere perbertsioak geure zintzotasuna azpimarratzen duelako. Gugandik hurbil munstrorik ez dugunean, haren irudia animaliangan, etsaiengan, ezezagunengan edo beste norbaitengan proiektatzen dugu, eta sarritan, *beste norbait* horren atzean gu geu gaude, horren adibide dira Hyde jauna eta Jekyll doktorea eta Dorian Grey eta bere erretratua. ††

Etimologikoki mirariarekin lotuta dagoen arren, munstroak ideia horren kontrakoa adierazten du, eta hori agerian gelditzen da, esaterako, aipatutako Hyde jauna eta Jekyll doktorearen kasuan edo Frankenstein doktorea eta bere izakiarenean, eta are gehiago, bigarren kasu horretan, gaur egun sortzailea eta izakia sarritan izen berarekin nahastera ere iritsi baikara. Berez, mehatxu egiten duena etsaia da eta, mehatxatua dena, zorigaitzekoa; munstroa, ordea, geure bizitzaren dualtasunaren metafora izaten da ia beti: *Kain* eta *Abel*, deabrua eta aingerua, ederra eta piztia.

Desberdina dena, *bestea*, *munstro* gisa ikusten dugu bere itxura gurearekin alderatuta oso desberdina bada, bere ideiak eta jokabideak ohikoetatik aldentzen badira, bere atsekabea ikustean

MUNSTROAREN

hamaika aurpegi

zorigaitza geure bizitzara ere etor daitekeela ohartzen bagara, bere keinuek geure ezkutuko beldurrak gogora ekartzen badizkigute. Horrexegatik urrundu nahi izaten dugu harengandik, guk geuk ihes eginez edo, beldurra, ohorea eta ezarritako morala bezalako trikimailuak baliatuta, hura uxaraziz. Eta orduan, mehatxu gisa edo gure segurtasun fisiko edo moralaren kontrako eraso gisa aurkezten diegu munstro hori gure ezagunei, asmakeria edo gezurren bidez, edo egia ez diren istorioak kontatuz. Eta zentzu horretan, literaturak eta zinemak funtzio terapeutiko eta propagandistikoa gauzatzen dute.

12 Gu eta munstroaren arteko oposizio horretan datza munstroaren zorigaitza, eta zorigaitz hori norbaitek erruki duenean edo haren lagun bihurtzen denean soilik arintzen da. Gaur egun sarritan gertatzen da hori, beldurra eta harriduraren kanonak aldatu egin baitira, bereziki umeen munduan, *Erpurutzoren* ogroa *Shrek* bihurtu dela dirudi eta. Folklore eta, zehazki, munstroa, inspirazio iturri amaigabeenetako bat da literaturarako, baita zinemarako ere, eta haren hainbat aurpegi erakutsi dira.

Literaturak eskaintzen dizkigun munstro gehien-gehienek munduaren ikuspegi ezatsegin berdintsua eskaintzen dutela dirudi. Literaturan garai guztietan hedatu den ikuspegia da eta, noski, zineman ere sarritan islatu da: Frankenstein doktorearen munstroa, Oscar Wilderen ipuinik hunkigarrietako bateko bufoi nanoa (*Infantaren Urtebetetzea* ipuinekoa, alegia, bilduma honetako lehenengoa), Quasimodo, Victor Hugoren Notre Dameko konkorduna nahiz jauregien historia unibertsaleko beste mila bufoi... Munstroek ezaugarri gehiegi dituzte komunean: guztiek dirudite *bestearn* proiektzio esperpentikoarekin lotuta, hau da, desberdina da, desitxuratua, ezezaguna, ederren arteko itsusia, argien arteko inozoa... Ikusle babesgabeari, abenturazale antropologoari edo idazle erresuminduari batzuetan jakin-mina

MUNSTROAREN

hamaika aurpegi

sentiarazten dio, beste batzuetan mespretxatu egiten dute, eta ia beti trufatu egiten dira. Batzuen istorioa kontatuz, munstroak hobeto ezagutzeko aukera izateaz gain, omenalditxo bat egiten diegu. Zailena irakurle edo ikusle gisa non kokatu erabakitzea da: hau da, haren alde ala aurka, erruki izan, mespretxatu ala iseka egin. Horixe da, hain zuzen, gizaki guztiok besteekiko dugun entengabeko zalantza, eta idazle askok islatu dute ideia hori.

Esaterako, Oscar Wilderen nanotxoa, jauregian infantaren bila dabilela, ispiluen gelan galtzen da, orduan, bere irudiarekin topo egiten du eta minez hiltzen da.

Munstroa, eta bereziki, jaiotzetiko malformazioen ondorioz munstro bihurtu dena, literatura lan klasikoetako erreferente nagusietako bat izan da betidanik, eta gaur egungo literaturan ere erreferente izaten jarraitzen du. Lehen, baina, botere maltzurra eta suntsitzailea egozten zitzaion eta, gaur egun, berriz, munstroaren antiheroi eta behartsu aurpegia azpimarratzen da. Orain ez du beldurra edo nazka eragiten, gupida eta errukia baizik. Horren adibide argiak dira *Bi anaia* ipuin txinatarra eta Jack Londonen *Ilargi-mutur* izenburuko ipuina, antologia honetarako hautatutako istorioetako bi.

Gehienetan, fikzio-sortzaileak bere munstroekin batzuetan nazka eta besteetan gupida eragiten du, hau da, antiheroi prototipo bihurtzen du. Definizio horren barruan milaka munstro sar ditzakegu: kultura guztietako ziklope mitologikoetatik humanoide futuristetaraino; ipuin tradizioaletako animalia-senargaitik genero fantastiko interaktiboarekin lotutako azken aurkikuntzetaraino. Ia munstro guztiak dira gaizkia eta deabruzkotasuna izaki bihurtuta. Beste batzuetan, desberdina den izaki koitadu bat da eta geure inhibizio eta beldur pertsonalen errua leporatzen diogu, edo barregarri usteaz gain, berekoikeria eta ohorearen

MUNSTROAREN

hamaika aurpegi

biktima bihurtzen dugu eta geure maltzurkeria guztiaz eraso egiten diogu. Bizitza horrelako egoera doilor eta krudelez beteta dago: txiki-txikitatik koadrilako kideek ume baldar, itsusi, desitxuratu edo ahulei iseka egiten diete eta, horrez gain, iraindu egiten dituzte, batzuetan helduek jakin gabe eta beste batzuetan haien oniritziarekin; helduaroan ere, menpeko langileek edo sozial eta politikoki zapalduta daudenek sistemaren desoreken eragin osoa jasaten dute. Kasu horietan, munstroa oharkabean igarotzen da ispiluaren alde batetik bestera eta ez dakigu ziur non dagoen benetan gizakiaren munstro-aurpegia: aurrean ikusten dugun zorigaiztoko gizakian ala geure baitan. Agian Guy de Maupassant izango da bere ipuinetako protagonista elbarri, erromes, emagaldur eta gizartetik kanporatuen bidez horrelako ispilu salatzaileak sortzen dituen maisu handienetako bat.

14 Baina, noski, batzuetan munstroari zorion dosi gutxi batzuk ere ematen zaizkio. Normalean hori haren lagun bihurtzen den umeren bati esker lortzen da. Umeari ez zaio higuigarria iruditzen, exotikoa baizik, eta bere xumetasunaren bidez, munstroaren nazkagarritasuna arintzea ere lortzen du. Spielbergen *E.T.* gaur egun umeei zuzendutako zineman islatzen diren fantasiatzko istorio hausleen adibide on bat da. Literaturan Roald Dalhen *Erraldoi on miragarria* dugu, adibidez. Andrew Adamson eta Vicky Jenson-en *Shrek* filmaren helburua emakume eder, piztia, gnomo, troll, herensuge eta printzesen ipuin folklorikoetako estereotipoak desmitifikatzea zen eta, horretarako, parodiara jo zuten, baina estereotipo horiek Oscar Wildek askoz lehenago azaleratu zituen *Erraldoi berekoia* eta *Cantervilleko Mamua* lanetan. Istorio horietan, maitatzeko eta maitatuak izateko irrikan dauden izaki gaixoak beren itxuragatik edo patuaren ondorioz erbesteratuta daude eta horrek agresibo bihurtu ditu edo agresiboak dirudite. Wildek ondo baino hobeto markatu

MUNSTROAREN

hamaika aurpegi

zuen ildo horretatik doa, baita ere, Sakiren *Arima Galduaren Irudia*, antologia honetan jasotako beste ipuin bat, baina istorio horretako pertsonaiek ez dute munstroaren aurpegirik ohikoena.

Zoritxarra, antiheroia, marjinatua eta sufrimenduaren estetika erromantikoa oinarri ezin hobea dira aipatu ditugun idazle guztien irudimenetik eta literaturan nahiz zineman aurki ditzakegun munstrorik enblematikoenak sortu dituzten beste hainbesteren imaginaziotik jaiotako izaki dohakabeak pizteko.

Norbaiten kanpo-itxura ikusita pertsona horrek “deabruzkoa” dirudiela esaten dugu, hain zuzen ere, deabruak animalien pareko gizaki desitxuratu gisa irudikatu izan direlako. Eta ez da arraroa, antzinako erlijio-sinesmenetan jada deabrua aingeru erori gisa deskribatzen baitzen. Deabrua bekatuaren irudikapen arketipikoa da eta, ondorioz, Jainkoaren zigorrarena ere bai. Hori dela eta, izaki ezatsegin gisa aurkezten digute, gizaki itxura guztiz galdu ez duen animalia bat balitz bezala, horrela lortzen baitu izu mailarik altuena, gizon-munstro bihurtzen denean, hau da, desberdina izan arren, geure antza izaten jarraitzen duenean.

Gizakiok beti izan dugu mespretxatzen dugun hurkoa animalia gisa ikusteko joera eta gaur egun ere, joera hori erakusten dugu harekin haserretzean iraintzen dugunean. Inkontziente kolektiboaren barru-barrutik azaleratzen den zerbait dela dirudi eta, sarritan, amets literario, plastiko eta zinematografikoetan islatzen da. Amets horietan irudimenezko elementuak eta jaiotzetiko deformazioak nahastu egiten dira eta, maiz, deabruzko ezaugarritzat jotzen dira. Horrelako tradizio eta herri-sinesmenetatik jaiotako adibide bat *Gizon basatia* ipuin tradizional britainiarra da.

Garai batean urruneko toki bakoitza alegiazko izakiren batekin lotzen zen beti, eta hori gure fantasia modernoetan

MUNSTROAREN

hamaika aurpegi

mantentzen da. Baso, aintzira eta haitzuloetan izakirik harri-garrienak bizi zirela esaten zen. Beharbada horrela adierazten dugu ezagutzen ez duguna kontrolatzeko ezintasuna. Kokoa, mamarroa, sakamantekas... gure haurtzaroko munstroak dira; bufoiak, nanoak, *clown*ak eta beste jostailu aristokratiko batzuk gure nagikeriaren adierazle dira; eta “mairuak”, beltzak, ijitoak... gure etnozentrismoarenak. Fantasia horrek gure irudimena elikatzen jarraitu du, literaturaren onerako, eta gaur egun, zinemaren mesederako ere bai.

16 Quasimodoek, Operako mamuek eta gorteko nanoek aspalditik aldarrikatzen zutena lortu dute: maitasun pixka bat eta kontuan hartuak izatea. Eta hori, gaur egungo pedagogiarekin eta haren baloreekin lotuta dago, baita Giza Eskubideek defendatzen dituzten postulatuekin ere: aniztasunarekiko errespetua, desberdina denaren integrazioa, marjinazioa desagerraraztea eta abar.

Oscar Wildek mamu ingeles aristokratiko bat berpizteko eta turista familia amerikar baten aurrean jartzeko ideia bikaina izan zuenetik, munstroaren arketipo klasikoetan oinarritutako eta umeei zuzendutako ipuin komikoen zerrenda amaigabea da: *E.T.*, *Edward Scissorhands*, *Shrek*, *Munstroak*, *S.A.* adibide gutxi batzuk baino ez dira.

Zinemarekin lotuta, etabatezere, beldurrezko eta indarkeriazko filmekin lotuta, gaur egun *legenda urbanoen* inguruko literatura folklorea ere badugu. Istorio horietako protagonista gehienak filmetan jaio direla dirudi eta, Interneteko web orrien bidez, gaur egungo herritarrentzat ohikoak diren tokietatik ibiltzen direla, hau da, munstroa ez da baso, haitzulo edo kripta zaharretatik ibiltzen, urbanizazio moderno, saltoki-gune eta jolas-parkeetatik baizik. Web orrialde batean aurkitutako *Los Cerrosko Munstroa* ipuina

MUNSTROAREN

hamaika aurpegi

horren adibide da. Istorio hori idatzi zuen pertsonak inspirazioa beldurrezko istorio fantastiko modernoetatik hartu zuen.

Munstro ikusezina ere ez dugu bilduma honetatik kanpo utzi nahi izan, baina ez gara gure irudimenak sortutako eta besteentzat existitzen ez den munstroari buruz ari –literatura klasikoan badugu munstro honen hamaika adibide–. Kasu honetan, munstro hautemanezinari buruz ari gara, gure itxurazko erosotasunaren tolesduretan ezkatututa dagoenari buruz, hain zuzen. Munstro horixe da Horacio Quirogaren *Kuxin lumaduna* ipuinean aurkituko duguna. Garai batean leprak eta izurriak munstro aurpegia izan zuten, gaur egun, hiesaren kasuan ere gauza bera geratzen da eta kutsatutako pertsonak krudeltasun osoz marjinatuak izan dira; birus informatikoak ikono beldurgarriekin irudikatzen dira, herriaren irudimenak etengabe sortzen ditu ezjakintasuna eta aurreiritzi sozialen ondoriozko beldurrak irudikatzeko mozerro berriak eta, horrela, munstroaren kontzeptua muga ezezagunetaraino hedatu da. Eta literaturan eta zineman ahalik eta modu beldurgarrienean irudikatzen saiatzen jarraitzen dute.

Orrialde hauetan munstroak literaturan eta zineman erakusten dizkigun aurpegietako batzuk erakutsi nahi izan ditugu. Ospe-tsuenekin batera –*Quasimodo*, *Drakula*, *Frankenstein*, *King-Kong*, *E.T.*, etab.– beharbada hain ezagunak ez diren beste batzuk ditugu, adibidez, hemen jaso ditugun ipuin hauetako protagonistak. Batzuk Oscar Wilde, Maupassant, Jack London, Quiroga eta beste idazle entzutetsuek sortutako munstro bikainak dira, beste batzuk, aldiz, herrietako folkloretik ateratakoak dira, eta ez dira falta azken urteotako sorkuntzak, baina badakigu beste asko orrialde hauetatik kanpo geratu direla eta alegiazko istorio ahaztu edo modernoetan, legenda urbanoetan edo rol-jokoetan daudela, agian, edizio zaharren batean edo Interneten nork aurkituko zain.

